



Espediente zk. : 2022ZAKO0001

Erreg. Data :

Erreg. zk : 000000

Gaia : Segurtasun aholku kontseilua_2021eko memoria

Eskatzailea : ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK) P2007200E

Kokalekua: ERRETERIA

AHOLKU KONTSEILUAREN MEMORIA

URTEA: 2021

Dokumentu honetan jasotzen da **Herritarren Segurtasunean parte hartzeko aholku kontseiluak 2021.** urtean izandako jardueraren laburpena.

Urteko bilera kopurua. 2021 urtean, aholku kontseilua 2 aldiz bildu da, zehazki data hauetan:

- Martxoaren 15a.
- Uztailaren 1a.

Parte hartu dutenak. Bilera hauetan ondorengo entitateek parte hartu dute:

- SOS Arrazakeria
- Gurutze Gorria
- Caritas.
- Errenkoalde.
- Ostari.

Udalaren ordezkari gisa 9 pertsona aritu dira (gobernu taldeko kideak eta udal teknikariak).

Tratatutako gai nagusiak. Urtean zehar tratatutako gai nagusiak hauek izan dira:

1) *Segurtasunarekin lotutako 2020. urteko datuak eta horien irakurketa.*

Erreterian salaturiko delituekiko Udaltzaingoak eta Ertzaintzak dituzten datuak aztertu dira eta baloratu, aurreko urteetako datuekin alderatuz.

2) *Segurtasun-gabeziaren prebentzioarekin eta gizarte-kohesioarekin lotuta, 2020ko gai aipagarrienak.*



Aztertu dira arazo iturri izan diren foko garrantzitsuenak eta horiek konpontzeko Udalak egin duen kudeaketa.

3) *Segurtasun-gabeziaren prebentziorako eta gizarte kohesioa sustatzeko ekintza planaren jarraipena.*

2019-2020 urteen artean osatu zen ekintza planaren atal ezberdinen garapen maila aztertu da.

4) *Elkarbizitza ordenantzari buruzko gogoeta prozesua.*

Elkarbizitza ordenantza beharrezkoa ote den edo ez zehazte aldera, eragile eta herritarrekin parte-hartze prozesu bat abiatu da, uda ostean.

Memoria hau udal gardentasun atarira igoko da, guztien ezagutzarako. Halber udal kudeaketa txostenen urteko memorian ere txertatuko da.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Izptua: Aholku kontseiluko idazkaria

Iker Rocandio Etxeberria

OE

Aholku kontseiluko presidentea

Aizpea Otaegi Mitxelena



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Segurtasun aholku kontseilua_2021memoria